

8.Funtsezko jarduerak:

Guk proposatzen dugun produktua merkatuko onena izango da prezio-kalitate aldetik.

Bezeroarekin fisikoki eta digitalki harremanduko gara (adinaren eta gustuen arabera bat ala beste nahiko dute erabili, orduan biak eskainiko dizkiegu).

Bezeroarekin harremanetan jartzeko bi modu izango ditugu: telefono zenbaki baten bidez edo web orri ofizial baten bidez. Bi moduetan berdin jarriko gara harremanetan. Bezeroen eskaerak eta zalantzak argituko ditugu.

Gure jarduera edo helburu nagusia, noski, diru sarrerak maximizatzea ahalik eta baliabide gutxien erabiliz.

Produkzioaren aldetik, droiez gainera, produktuak banatuko ditugu, orduan, jendeak kontsumitzen duenaren arabera aldatuko da produkzioa.

Gure bezeroek izan ahal dituzten arazoak konpontzeko telefono zenbaki bat jarriko dugu gure web orrian arazo bat izatean telefono horretara deituz konpontzen laguntzeko. Horrez gain, gurekin harremanetan jartzeko email kontu bat egingo dugu.

Entregak burutzeko paketeria sistema ohikoena erabiliko dugu. Hau da, abiapuntutik ekarriko dizkigute paketeak kamioien bidez (azpikontratatuak edo gure kamioiak). Gure logistika zentroetan sailkatu eta droien bidez banatuko ditugu gure bezeroen artean.

Gure plataforma digitala gestionatzeko talde bat izango dugu. Mantenua egiteko eta gure aplikazioa eta bere edukia eguneratzeaz arduratuko dira, beti enpresaren onerako. Eskaintzak ere digitalki egingo ditugu. Adibidez Instagram kontu bat ireki eta enpresaren edukia igoko dugu. Horren bitartez, bezero berriak ere erakarri nahi ditugu.